



JOXE LIZAUR: "Gure ondorengiak lehenago zelako erreminttakin lan egitten zan ikustiarren, batu dittut horreik danok"


Askazubin, Joxe Lizaurren jaixotetxe eta bizilekuan, gaur egun eztao ganaurik ittoian ezta labrantzaiaren fruturik kamaran, baiña bai edozein etnografia-museok inbidixaitteko moduko tresna eta erremintta bilduma ederra.

Puntura arte hemengo baserrittan bizimodua ataratego ebalten ziran tresnak batu eta moldaitia da Joxeren afiziñua eta, ezta lehenengo aldixa beragana joten dogula, holako tresnak zertarako ziran jakin guran.

- Kontau eiguzu zela hasi ziñan museo antzeko hau egitten?

Gure gazte denporan baserri eta baso lanak egiñaz bizi giñan, baiña aurrerago fabrikako lanari be heldu bihar izan gotzan, familixia aurrera atarata gura bageben. Eta hala Enaran hasi nintzan eta artian be ardi mordoxka bat eta ganau bat bagittuan. Baiña gero onezketan hasi nintzan eta, lehenengo ganaua eta hurrengo ardixok kendu bihar izan gittuan, nere bronkixotako gaitz honek saniattek ezeukala eta zaindu bihar haundixa eukalako.

Eta holaxe, orain dala 8 urte, nik 64 nittuala, fabrikan erretirua hartu, etxian lan haundi barik, eguna luze faten zan



eta gogaitt egitten neben; hortitxek hasi nintzan lehenagotik be gordeteko afiziñua neukan traste horreik poliki-poliki moduketan. Eta orain hortxe dagoz!

- Txukun asko gaiñera, sailka edo gaika organizautu.

Bai, hala dagoz: tarte baten sukaldoko tresnak; hurrengo tarte baten goruetako gauzak, harixa egitteko erabiltten ziranak; hurrengo arotzeixan lan egitteko biharrezkuak; beste tanda baten errementarixak eskuz egitten zittuein ganauen perrak, morrailluak, ulziak eta holakuak; hurrengo ikazkintzan erabiltten gittuan trastiak; baitta labrantzakuak be.

- Etxian egozen gauzakin hasi ziñan?

Bai, bai, hor dagozen gauza gehixenak etxekua dira, baiña gaiñetik jirautakuak be badira. Batera et bestera urtetan gebela etxian ez geunkan gauzare bat ekarri be egin dogu. Gero, andriaren etxekua Koixkarrekuak, kalera fa ziranian handik be zeatu gittuan gauza batzuk. Eta besten batzuk erregalau be egin dostei.

- Horko gauza asko konponduta edo barrixak barri egindakuak be badira...

Bai, gauza gehixena konpondu biharra izan daue. Lehenago, zerbiziñua egittuen ebeiñian, zaindduta et ondo egoten ziran, baiñ orain ebalizian, ba, jare


eta zenbaitt material, biguna baldi bada, erdi ustelketan igual.

Hor eskulan asko egindda dago trastiok egon baegozen, baiña hol sano-sano, gutxi: batek kirtena apurta eukala, bestiak hortz bat falta ebele hurrengua ordeittuta eguela. Horrei ordu askorekin dagoz egindda; eskerak etxekua, andriak batez be, asko lagundu dosteilla.

Traste asko, lehen ziran modukuak baiña barrixak be egin dittut nik.

- Eta zela zekitzun horren barri?

Horreik lanok, gutxi edo asko danak ezagutu dittutelako. Baitta azkenengo konponduta dagozen liñu-lanetarako mazua, liñarrixa... Bueno, gurian



PEUGEOT-TALBOT

OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50 OÑATI

ADI

- Fotokopiak
- Kolorezko kopiak
- Enkuadernazioak
- Fax publikoa

Foruen Enparantza

OÑATI

Tel: 78 24 89 Fax: 78 24 89

ñua gozaketako eguena etzan baserri skotan atian egoten zan moduko harria; gurian egurra eguen, eta, ha be oka. Orduan be gauza danak etziran gogi egongo!

- Gauza danak hemenguak dira?

Gehixenak bai. Badakot Naparruatik karrittako laixa pare bat; hangiak hemen ebalten ziranak baiño luziaguak dira. Baiña bestela, traste eta erraminta gehixenak nik ikusi edo erabillitako modukoak dira edo oso antzerakuak.

Izan be, honeik danok pillaketia gure ondorenguari hemen zela bizi zan garien erakustiarren izan da. Behin torri ziran gure gaztetxuak ganaua ztarrixan zela lotzen zan preguntaiten; ez ekixein! Guk geure bizimodu lanian horixe ikusitta eta orain geure seme-alaben umiak etzakixe ganauak zela lotzen ziran, ez burdixa zela erabiltten zan.

- Banastagiñen erraminttak be zeuk ebalittakuak dira?

Ez nik neuk eztot sekula banastarik egin. Baiña ikusi bai, hor dagozen erramintta gehixenak kaleko tio batenak ziran. Hemen Aurrekomendixan etzan banastarik egitten; kalian bai, kalian asko, Kasablankatik hasitta, Kale Zaharrian, Mendiko kalian... Hemen, bakkarik Antzuelas Etxebarrikuak egitten eben eta lehenago, Koixkar Azpiko Batistak egitten zittuala entzunda dakot.

- Ikazkintzan, barriz, zeu be ibilita zagoz...

Bai, bai. Hemen jente askok jardun eben horretan. Lehenago, hor beheian fabrikak alde batetik eta bestetik zabaldu baiño lehen, hemen mendi-etxetan egur-ikatza egin bihar izaten zan dirua inguraketako. Ikazgintzaia oso lan gogorra zan: lehenengo neguan egu-

rak gertaketan ibiltten ziñan eta gero udan, tarteka txondorrok kargaitten ziran eta horreik egosteko denporan bertan egon bihar izaten zan, lo be kamaiñan egindda.

- Eta inguruko lurra onak dira labrantzarako?


Samurra bai, baiña dagozen aldapa haundixekin labrau alditan lurra behe- ra faten ziran, goixena hustu eta barrenian pillatu. Eta gero barreneko lurra gora jaso bihar. Banastatxoka egitten zan hori, urtian behin edo; batian auzoko etxe baten eta hurrengo bestian 8 edo 10 lagun juntau eta illaran jarritta behetik gora lurra bizkarka jasoten zan. Geruago lan hori egitteko poleia be ebali izan zan: ganauk kabliari tira egitten otzain lurrarekin kargutako leria behetik gora jasoteko.

- Eta orain lur honeik labraitzen dira?

Ez, oso gutxi, orain gehixena ganau- tarako da, larrarako. Gaur bape gauza danak norabaitera urteten dau irabaz- tera; eta bera onena, hemen aldapa honeittan bizimodua atarateko bide motza ikusten dot nik.

- Bizimodua asko aldatu da ezta?

Bai, izugarri. Eta urte gutxian gai- ñera! Gurian andriak eta nik 10 urteren aldia dakogu, eta berak esaten dau eztauela ezagutu bere etxian goruetan, nik barriz bai, gure ama zana askotan



Petrolio-potia argi-mutillian jarrita goruetan edo liñu-lanetan egitten ebein Joxeren aitta-amak

“Neure bizimoduan ikusi dittutelako esan neke hor dagozen gauza danen izenak eta zertarako ziran”

Ferralleria eta brikolaia

ELORZA

Kale Barria, 17 Tfnoa: 78 07 80
OÑATI

BITTOR

ALTZARIAK

PROIEKTU BIDEZ

ETXERAKO ALTZARI GUZTIAK

FAGOR

Sukalde eta elektragailuak

San Lorenzo, 1 eta 41. OÑATI
Tfnoak: 78 16 08 eta 78 34 21. Faxa: 78 34 21



"Puxetia etxe guztietan egitten zan, baiña orainddiok iñok eztost esan guria lako lixi-potolo borobillik eukaiñik. Bueltan-bueltan lan asko egindda dako harri horrek."

ikusi neben lan horreik egitten petrolio argixarekin.

Hementxe egoten ziran, petrolio-pote horrekin, ama zana liñu-harixa egitten eta aitta zana ardi-laniakin galzak edo trailak egitten, bakoitza argixa bere alderatxuago tiraka. Ondo goguan dakot hori!

- Orain sukaldera ekarri dozuein petrolio-ontzixa ondo estimau dakotzu...

Bai, nik ezagututako lehenego argixa hortxe ikusi nebelako. Guk sua eta ikusiko geben, baiña eztakot goguan. Lehenengo horretxen argixa akordaitten naiz ni, zela egoten zan *pu-pu-pu*, keia daixola eta zela begira egoten giñan gu.

Hortik hurrengo karburua izan zan eta gero elektrika kontu hau etorri zan. Hemen 60 urte pasatxo izango dira argixa lehenego aldiz ifiñi zala. Bergara aldetik ekarri zan hasieran.

- Honako bidia noiztik dago porlanduta?

Zortzi bat urte izango dira pista honen azkenengo pusketia bota zala. Lehenago bide zahar batetik gebitzen, urtero ekiñaldiren bat egiñaz harrixak bota eta arreglauaz, eta artian eurixa zanian kateiak ifiñi bihar. Telefonua, pista baiño lehenago jarri geben.

Neretako, baserrirako agertu diran aurrerapiderik haundixenak argixa, pista eta telefonua dira.

Lehenego kontuekin konparauta, ixa kalia dozu hau gaur. Orain! bakardadia be haundixa dala, bestela ondo bizi leike hemen. Baiña lehenago bizimodu gogorra zan mendixan.

- Lana gogor egitten zan orduan, baiña jaixak be egongo ziran?

Bai, pozgarririk haundixena jai arratsaldia izaten zan. Goiza ganaujatekua egitten eguardi artian. Eta gero arratsaldian Lizargaratera, boletan egin eta gero dantzan.

Domekero-domekero egoten zan erromerixia, filarmonikia eta panderuakin, trikitixa eta helduta be dantzan egitako.

Mezetara be, 1925ian Koixkarren elizia egin zanetik hara faten giñan. Horren aurretik gure aitta eta Zubillagara jaisten ziran eta San Pedro eguna zelabraitzen ebein; orain, barriz, Jesusen Bihotzaren eguna. Bestela, auzotasun danak Zubillagara dakogu.

- Azalditta be erromerixa-leku formala ei zan.

Bai, urtian behin izaten zan, agostoko Andra Marixaren ondorengo domekan, beti egun bat bittarteko zala. San Balandran zala esaten ebein, baiña han ezta ermittarik be. Herri askotako jentia juntaitten zan han: Antzuola, Bergara, Oñati, Legazpi.



- Bolatan egitteko bolia eta txiriluak jasota dakotzula be ikusi dogu, beste jolas batzuen ezer badakotzu?

Bolia, erregalau egin nostain eta hiru txiriluak neuk egin nittuan. Jolasak eta umien arteko kantuak be asko galdu dira.

Lehen desaiatten egoten giñan gari-zuman txirikillatan egitteko. Ondo gordeta eukitten gittuan *txirikillia* eta *kaldersona* urte batetik bestera. Horreik eztakot, baiña orainddiok igual egin be!

Gero beste bat oso arrisku haundi-ko jolasa be egitten geben guk, nes-kattilla eta mutiko: *Txutxurrutxuka*. Burdixaren atzian jasarri hiru edo lau eta bat puntan, ganauak lotzen diran lekuan, eta atzia beheratutakuan puntia gora faten zan; hantxe gora eta behera.

LAIXAN eta KAPIRIXOko tresna zaharren batzailiak.

LEIRE

KIROLAK eta HAUR MODA

San Lorenzo, 120
Tfnoak: 78 34 55 / 78 17 35
OÑATI

BELAR Irrati-Telebista S.A.

Elektrizitate instalakuntzak

Atezain automatikoak

Elektratresnen salmenta eta konponketa

TB-HIFI

Olakua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57 OÑATI